Udal Zigilua / Sello Ayuntamiento (1, guztira 1)
Ayuntamiento de Lakuntza
Sinaduraren data: 18/09/2024
HASH: 38bda740960e6470c30ee373317d140d

| 2023KO EKAINAREN 26KO BILERAREN AKTA | *ACTA DE LA SESIÓN DEL 26 DE JUNIO DE 2023* |
|---|---|
| **Organoa:** Udalbatza.<br>**Batzarra:** Ezohikoa.<br>**Deialdia:** Lehenengoa.<br>**Eguna:** 2023.06.26<br>**Ordua:** 21:00.<br>**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia.<br><br>**Bertaratuak:**<br>**Alkatea:** Oihane Uribeetxebarria Garmendia<br><br>**Zinegotziak:**<br>José M. Azpiroz Armendariz<br>Rita Torrico Muniz<br>Sergio Goicoetxea Bergera<br>Patxi X. Razkin Sagastibeltza<br>Eba Leatxe Itoiz<br>Miriam Mendikute Garate<br>Asier Gartziandia Ormaetxea<br><br>**Idazkaria:** Maria Barkos Berruezo. | ***Órgano:*** *Pleno.*<br>***Sesión:*** *Extraordinaria.*<br>***Convocatoria:*** *Primera.*<br>***Día:*** *26.06.2023*<br>***Hora:*** *21:00.*<br>***Lugar:*** *Salón de Plenos del Ayuntamiento.*<br><br>***Asistentes:***<br>***Alcaldesa:*** *Oihane Uribeetxebarria Garmendia*<br><br>***Concejales:***<br>*José M. Azpiroz Armendariz*<br>*Rita Torrico Muniz*<br>*Sergio Goicoetxea Bergera*<br>*Patxi X. Razkin Sagastibeltza*<br>*Eba Leatxe Itoiz*<br>*Miriam Mendikute Garate*<br>*Asier Gartziandia Ormaetxea*<br><br>***Secretaria:*** *Maria Barkos Berruezo.* |
| **Aztertu beharreko gaiak:**<br><br>**1.- Azkeneko aktaren onespena.**<br>**2.- Ohiko osoko bilkuren maiztasuna.**<br>**3.- Osoko bilkuraren eskumenekoak diren organo guztietan udalbatzaren ordezkapena eramanen duten kideak izendatu.**<br>**4.- Kargu publikoen ordainsariak.**<br>**5.- Alkatearen ebazpenak**<br>**6.- 2023ko uztaileko hauteskundeak: mahaiak osatzeko zozketa.**<br>**7.- Fakturak.**<br>**8.-Eskari eta Galderak.** | ***Asuntos a tratar:***<br><br>***1.- Aprobación Acta sesión anterior.***<br>***2.- Periodicidad de las sesiones ordinarias del Pleno.***<br>***3.- Nombramiento de representantes de la corporación en órganos competencia del Pleno.***<br>***4.- Retribuciones cargos públicos.***<br>***5.- Resoluciones Alcaldía.***<br>***6.- Elecciones julio 2023: sorteo para formación mesas.***<br>***7.- Facturas.***<br>***8.- Ruegos y preguntas.*** |
| **1.- AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**<br><br>Aurreko ezohiko bilkura, 2023ko ekainaren 17an; eta honekin batera doa | *1.- APROBACION ACTA SESION ANTERIOR.*<br><br>*Se adjunta borrador de acta extraordinaria de la sesión anterior celebrada el 17 de* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| bilkura honen aktaren zirriborroa.<br><br>Bilkura hastean, bilkuraren buru egiten duenak bertaratu diren korporazioko kideei galdetuko die ea oharrik egin nahi dioten deialdi honekin batera doan aktaren zirriborroari, hala ezartzen baitu Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 91. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).<br><br>Hori horrela, honakoa ONARTU DA:<br><br>Lehenengoa.- 2023ko ekainaren 17ko ohiko bilkurako aktak onestea.<br><br>Bigarrena.- Onetsitako akta Akten Liburuan transkribitzea, hala egin behar dela ezartzen baitu, bai eta nola egin behar den ere, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 323. artikuluak. | *junio de 2023.*<br><br>*Al comienzo de la sesión, quien la preside pregunta a los miembros de la Corporación que se encuentren presentes si desean formular observaciones al borrador de acta que se ha adjuntado a esta convocatoria, tal y como dispone el artículo 91 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (Real Decreto 2568/1986).*<br><br>*Visto lo anterior, SE ACUERDA:*<br><br>*Primero.- Aprobar el acta de la sesión extraordinaria del 17 de junio de 2023.*<br><br>*Segundo.- Proceder a la transcripción del acta aprobada en el Libro de Actas, de conformidad con el artículo 323 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local de Navarra, y en el modo en que dicho precepto establece.* |
| **2.- OHIKO OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA.**<br><br>Toki Entitateen antolakuntza eta jarduera araudiaren 38. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, erabaki da ohiko osoko bilkurak hilabetearen hirugarren ostegunetan egitea, arratsaldeko 19:00etan.<br>Abuztuan ez dira bilerak egingo. | ***2.- PERIODICIDAD DE LAS SESIONES ORDINARIAS DE PLENO.***<br><br>*En cumplimiento a lo establecido en el artículo 38 del Reglamento de organización y funcionamiento de las Entidades Locales, se acuerda establecer las sesiones ordinarias de pleno los terceros jueves de cada mes a las 19:00 horas. El mes de agosto no se convoca pleno.* |
| **3.- OSOKO BILKURAREN ESKUMENEKOAK DIREN ORGANO GUZTIETAN UDALBATZAREN ORDEZKAPENA ERAMANEN DUTEN KIDEAK IZENDATU.**<br><br>Toki entitateen antolakuntza eta jarduera araudiaren 38. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, erabaki da ondorengo ordezkariak izendatzea eta batzordeak eratzea:<br><br>**<u>* Sakanako Mankomunitatea:</u>**<br>- Batzar Orokorra: Oihane Uribeetxebarria | ***3.- NOMBREMIENTO DE REPRESEN-TANTES DE LA CORPORACIÓN EN ORGANOS COMPETENCIA DEL PLENO.***<br><br>*En cumplimiento a lo establecido en el artículo 38 del Reglamento de organización y funcionamiento de las Entidades locales, se acuerda establecer y nombrar los siguientes representantes y comisiones:*<br><br>***<u>* Mancomunidad de Sakana:</u>***<br>*- Asamblea General: Oihane* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| Garmendia eta Miriam Mendikute Garate OrdezkoaK: Asier Gartziandia Ormaetxea eta Sergio Goikoetxea Bergera. | *Uribeetxebarria Garmendia eta Miriam Mendikute Garate. Sustitutos: Asier Gartziandia Ormaetxea eta Sergio Goikoetxea Bergera* |
| - Anitzartean: Rita Torrico Muñiz. Ordezkoa: Eba Leatxe Itoiz. | *- Inmigración: Rita Torrico Muñiz. Sustituta: Eba Leatxe Itoiz.* |
| - Euskara: Oihane Uribeetxebarria Garmendia. Ordezkoa: Sergio Goikoetxea Bergera. | *- Euskara: Oihane Uribeetxebarria Garmendia. Sustituto: Sergio Goikoetxea Bergera.* |
| - Kirola: Asier Gartziandia Ormaetxea. Ordezkoa. Jose Manuel Azpiroz Armendariz. | *- Deportes: Asier Gartziandia Ormaetxea. Sustituto: Jose Manuel Azpiroz Armendariz.* |
| - Berdintasuna: Rita Torrico Muñiz. Ordezkoa: Eba Leatxe Itoiz. | *- Residuos: Sergio Goikoetxea Bergera. Sustituta: Oihane Uribeetxebarria Garmendia* |
| - Hondakin: Sergio Goikoetxea Bergera. Ordezkoa: Oihane Uribeetxebarria Garmendia. | *-Igualdad: Rita Torrico Muniz. Sustituta: Eba Leatxe Itoiz* |
| **<u>* Oinarrizko Gizarte Zerbitzua</u>:** Oihane Uribeetxebarria Garmendia Eba Leatxe Itoiz | ***<u>Servicio Social de Base</u>:*** *Oihane Uribeetxebarria Garmendia Eba Leatxe Itoiz.* |
| **<u>* NUKF:</u>** Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Asier Garziandia. | ***<u>* FNMC:</u>*** *Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Asier Garziandia.* |
| **<u>*Cederna-Garalur</u>:** Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Asier Garziandia. | ***<u>*Cederna-Garalur:</u>*** *Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Asier Garziandia.* |
| **<u>* Udal batzordeak:</u>** | ***<u>* Comisiones Municipales:</u>*** |
| - Ogasun Batzordea : Oihane Uribeetxebarria, Eba Leatxe, Miriam Mendikute, Rita Torrico, Sergio Goikoetxea, Jose Manuel Azpiroz, Asier Garziandia. | *- Hacienda: Oihane Uribeetxebarria, Eba Leatxe, Miriam Mendikute, Rita Torrico, Sergio Goikoetxea, Jose Manuel Azpiroz, Asier Gartziandia.* |
| - Kontseilu Eskolarra: Oihane Uribeetxebarria, Jose Manuel Azpiroz. | *- Consejo Escolar: Oihane Uribeetxebarria, Jose Manuel Azpiroz* |
| - 0-3 Kattuka: Asier Garziandia, Oihane Uribeetxebarria. | *- 0-3 Kattuka: Asier Garziandia, Oihane Uribeetxebarria.* |
| | *- Cultura y Fiestas: Jose Manuel Azpiroz.* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| - Kultura eta Festak: Jose Manuel Azpiroz.<br><br>- Hirigintza: Oihane Uribeetxebarria<br><br>- Musika Eskola: Miriam Mendikute.<br><br>- Kirolak: (aurrerago zehazteko). Momentuz Oihane Uribeetxebarria.<br><br>- Auzolan: (aurrerago zehazteko). Momentuz Oihane Uribeetxebarria.<br><br>- Baso eta Ingurugiroa: (aurrerago zehazteko). Momentuz Oihane Uribeetxebarria .<br><br>- Euskara: (aurrerago zehazteko). Momentuz Oihane Uribeetxebarria.<br><br>*** Udalbiltza:** Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Jose Manuel Azpiroz. | *-Urbanismo: Oihane Uribeetxebarria*<br><br>*- Escuela de Música: Miriam Mendikute.*<br><br>*- Deportes: (pendiente de determinar), hasta entonces Oihane Uribeetxebarria.*<br><br>*- Auzolan: (pendiente de determinar), hasta entonces Oihane Uribeetxebarria.*<br><br>*- Montes y medio ambiente: (pendiente de determinar), hasta entonces Oihane Uribeetxebarria.*<br><br>*- Euskara: (pendiente de determinar), hasta entonces Oihane Uribeetxebarria.*<br><br>***- Udalbiltza:*** *Oihane Uribeetxebarria. Ordezkoa: Jose Manuel Azpiroz.* |
| **4.- Kargu publikoen ordainsariak.**<br><br>Ikusirik 7/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena, 2022ko eta 2023ko aurrekontu-ekitaldietarako. Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, osoko bilkuran Udalbatzak aho batez honako hau erabaki du:<br><br>Lehena.– Alkateak dedikazio osoa izatea onestea.<br><br>Bigarrena.– Alkateak lanaldi osoa izango du, eta hamalau hileko ordainsari jasoko ditu: 2.000 euro garbi. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko | ***4.- Retribuciones cargos públicos.***<br><br>*A la vista de lo establecido en la Ley Foral 7/2022, de 22 de marzo, por la que se establecen la cuantía y la fórmula de reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los Tributos de Navarra por Transferencias Corrientes para los ejercicios presupuestarios de 2022 y 2023; con base a lo preceptuado en el artículo 75 de la LBRL y artículo 13 de ROF; estudiadas las especiales características del Ayuntamiento, el pleno del ayuntamiento aprueba por unanimidad::*<br><br>*Primero.– Aprobar la dedicación exclusiva de la Alcaldesa.*<br><br>*Segundo.– La Alcaldesa tendrá jornada completa, con una cuantía a percibir de catorce mensualidades de 2.000 euros netos. A esta cantidad se le habrá aplicado las retenciones que legalmente correspondan en concepto de Impuesto* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik. Era berean, Udalak bere gain hartuko du enpresa kuota ordaintzea. Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira KPIren igoeraren arabera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu. | *sobre la Renta de las Personas Físicas y cuota obrera de la Seguridad Social, asumiendo el Ayuntamiento el pago de la cuota empresarial. Si por el Órgano competente no se aprobase otra subida, la retribución se actualizará anualmente con la subida del IPC.* |
| Hirugarrena.– Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzan dagokion araubidean sartzeko edo alta emateko, legediak agindutako moduan. | *Tercero.–Solicitar a la Oficina Territorial de la Tesorería de la Seguridad Social la afiliación y alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social, de la Alcaldesa en la forma que legalmente corresponda.* |
| Laugarrena.– Dedikaziorik ez duten gainerako hautetsiek zenbateko hauek jasoko dituzte Osoko Bilkuretara joateagatik: | *Cuarto.– Determinar que los miembros de la Corporación que no tienen asignada dedicación alguna, percibirán las siguientes cantidades por asistencia a Plenos:* |
| –Osoko Bilkuretara joatea: 90 euro (laurogeita hamar euro) osoko bilkura bakoitzean agertzeagatik; urtean 900 euro, gehienez ere. | *–Asistencia a Plenos: 90 euros (noventa euros) por cada asistencia. Límite máximo anual a cobrar por cada concejal: 900 euros.* |
| Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta. | *A dichas cantidades se les aplicarán las retenciones que procedan en concepto del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.* |
| Bostgarrena.– Udalbatzako kideek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute karguan ari direla izandako gastuen ordain, beti ere gastu horiek behar bezala baimendu badira eta agirien bidez justifikatzen badira. Baldintzak eta zenbatekoak, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat urtero ordainsarien alorrean ezartzen direnak izanen dira. | *Quinto.– Determinar que todos los miembros de la Corporación tendrán derecho a percibir indemnizaciones por los gastos efectivos ocasionados en el ejercicio de su cargo, siempre que sean debidamente autorizados y justificados documentalmente, en los términos y cuantías, que para cada año se establezca en materia retributiva, para el personal al servicio de la Administraciones Públicas de Navarra.* |
| Seigarrena.– Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea. | *Sexto.– Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios de Ayuntamiento.* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| **5.- Alkatearen ebazpenak**<br><br>Toki Entitateen Antolakuntza- etaJarduera-Araudiko 42. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), Osoko Bilkurari ondoko ebazpenen berri ematen zaio: 2023/28. ebazpenetik, maiatzaren 5ekoa, 2023/39. ebazpenera, ekainaren 9koa; bitartekoak, biak barne. | ***5.- Resoluciones Alcaldía.***<br><br>*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 del Reglamento de Organización y funcionamiento (Real Decreto 2568/1986), se da cuenta al pleno de las siguientes resoluciones dictadas por alcaldía: desde la resolución nº 2023/28, de 5 de mayo; a la resolución nº 2023/39 de 9 de junio; ambas incluidas.* |
| **6.- 2023ko uztaileko hauteskundeak: mahaiak osatzeko zozketa.**<br><br>Idazkariak jakinarazi du zozketa egin behar dela uztailaren 23ko hauteskunde orokorretarako Hauteskunde Mahaia osatuko duten pertsonak hautatzeko, indarrean dauden Hauteskunde Arauen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ezarritako legezko formalitate guztiak bete ondoren, Udal honek dagozkion bi hauteskunde-mahaiak osatu ditu.<br><br>**7.- Fakturak.**<br><br>Maiatzean eta ekainean jaso diren fakturen zerrenda onartu da.<br>Guztira 51.940,40 euro izan da. | ***6.- Elecciones julio 2023: sorteo para formación mesas***<br><br>*Por la Secretaria se da cuenta de la necesidad de realizar sorteo para la elección de las personas que han de componer la Mesa Electoral para las elecciones Generales del próximo día 23 de julio, según lo dispuesto en el artículo 26 de las Normas Electorales vigentes.*<br>*Cumplidas todas las formalidades legales establecidas, este Ayuntamiento ha formado las 2 mesas.*<br><br>***7.- Facturas.***<br><br>*Se aprueba la relación de facturas recibidas el mes de mayo y junio. Asciende a 51.940,40 euros.* |
| **8.- Eskari eta Galderak.**<br><br>Ez dira egin.<br><br>Eta besterik gabe, 21:35ean, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatua; eta Alkateak sinatua. | ***8.- Ruegos y preguntas****.*<br><br>*No se formulan.*<br><br>*Y no habiendo más asuntos que tratar y siendo las 21:35 horas se levanta la sesión de la que se extiende la presente acta que conforme lo firma la Alcaldesa y la Secretaria, que lo certifica.* |

Baliozkotze Kod.: YDW5TC7Z4Y5W9NTQTTQ9SMP29
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6